

2018KO TOLOSAKO JAIEN BERDINTASUN BEHATOKIAREN EMAITZEN LABURPENA

TXOSTENAREN LABURPENA

2018 Abendua



AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA.....	4
2. LAN PROZEDURA.....	4
3. ANTOLAKUNTZA.....	5
sarrera.....	5
Udal antolakuntza:.....	5
Jai bilerak.....	5
Balorazioa: Aurrerapenak.....	6
4. KOMUNIKAZIOA.....	7
sarrera.....	7
kartela.....	7
Egitarau orokorra.....	7
Prentsa oharrak, sare sozialak eta hedabideak.....	8
Udal agerraldia.....	8
Balorazioa: aurrerapenak.....	9
5. EGITARAUA.....	11
Sarrera.....	11
Txupinazoa.....	11
Jardueraren deskripzioa eta analisia.....	11
Balorazioa: aurrerapenak.....	12
MUSIKA.....	13
Metodologia.....	13
Partaidetzaren genero analisia.....	13
Antolakuntza.....	18
Berdintasun ikuspegitik ondorioak eta erronkak.....	18
Balorazioa: aurrerapenak.....	19
KIROLAK.....	20
Metodologia.....	20
Jardueraren garrantzia, deskribapena eta analisia.....	20
Partaidetzaren genero analisia.....	20
Berdintasun ikuspegia ondorioak eta erronkak.....	22
Balorazioa: Aurrerapenak.....	23
6. INDARKERIA.....	24

Sarrera.....	24
Joka sano! Eta Tolosak, Ezetz! Kanpainak eta beste jarduera batzuk.....	24
Sexu erasoen eta protokoloaren kudeaketa.....	24
Balorazioa: Aurrerapenak.....	25
7. BALORAZIO OROKORRA.....	26

1.....AURKEZPENA

Tolosako udalak 2010 urtetik darama jaietan berdintasun ikuspegia txertatzen era aktibo batean. 2016 urtean, Tolosako Jaien Berdintasun Behatokia diseinatu zen. Behatokiaren helburua berdintasun politikak modu estrategiko, sistematizatu eta eraginkorrean aplikatzeko tresna izatea da, jaiak berdinzalegoak izan daitezen.

2017 urtean Behatokia lehen aldiz martxan jarri zen, eta prozesuko ikaspenetan eta emaitzetan oinarrituta¹, 2018 urterako San Joan jaien analisirako lan esparruak eta lanketa eredia prestatu ziren. Behatokiak azterketa hau egin du eta emaitzak txosten batean jaso ditu. Dokumentu hau emaitzen txostenaren laburpena da.

2.....LAN PROZEDURA

Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren Oinarri dokumentuan Behatokiak izango duen lan prozedura eredia azaltzen da. Lan prozedura honek lau fase ditu:

- Plangintza
- Informazioa jaso
- Analisia
- Komunikazioa

Horretaz gain, lehenago aipatutako dokumentuan ikusi daiteke zehatz mehats Behatokiaren funtzionatzeko modua, baita aztertzen diren esparruak.

¹Txosten honen laburpena Tolosako web orrian topatu dezakezu.
<https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/berdintasuna/programa-eta-proiektuak/jaiak-behatokia-eta-gida/jaiak-behatokia>

3.....ANTOLAKUNTZA

sarrera

Atal honen helburua Tolosako jaien antolakuntzaren inguruan genero analisia egitea da.

Behatokiak 2018 epealdiko San Joan jaiak aztertzeko, udal eskumenaren baitan dauden egituretan zentratuko da: Jaiak Departamentua eta Jai Bilerak.

Udal antolakuntza:

Jaien antolakuntza eta kudeaketarako egitarau propioa du Tolosako Udalak, eta lan hau aurrera eramateko, Jaiak teknikari koordinatzailea eta laguntzailea daude.


Beste alorrekin gertatzen den bezala, berdintasuna zeharkako gai moduan sistematikoki txertatzeko urratsak eman diren arren, oraindik erronka handiak gelditzen dira.

Jai bilerak

Jai bilerak udal arduradun politikoak eta teknikoak eta herritarren arteko elkarguneak dira, jaien inguruan hitz egiteko.

Bilera guztiak kontutan hartuta gizonezkoen parte hartzea %50koa (26) izan da, emakumezkoena %37 (19) eta sexua jaso gabe gelditu diren partaideen kopurua %13 (7).

JAI BILERETAKO KIDEAK SEXUAREN ARABERA



Kontuan hartu behar dugu genero analisia egiteko Jai Bileretan emakumeen presentziaren inguruko informazio kuantitatiboa ez dela nahikoa.

Azpimarratu behar da Jai Bileretan, ondorengo jarduerak egin direla: “Jaiak berdinzaleagoak bihurtzeko gida” banatu (1go bileran) eraso sexisten protokoloaren eta Behatokiaren berri eman eta gauetako brigaden antolakuntzaz hitz egin da (Maiatzaren 30eko bileran).

Balorazioa: Aurrerapenak

- Jaien antolakuntzan maila politikoan emakumeen presentzia altua da.
- Jaiak eta berdintasun sailen arteko koordinazioa eta elkarlana poliki garatzen doa.
- Jai Bileretako aktetan partaideen sexua jasotzen da, gehienetan.
- Jai Bileretan berdintasun politiken berri ematen da: “Jaiak berdinzaleak egiteko gida” aurkeztu da, eta eraso matxisten kontrako protokoloa eta Behatokiaren berri eman da.
- Parte hartzaileen artean indarkeria matxistaren kontrako sentsibilizazioa dagoela hauteman daiteke.
- Behatokiaren emaitzak eta gaiaren inguruko kontzientziak eta formazio saioa emango da maila politiko eta teknikoan.

Egitarauko alkatearen agurrean, aurten ez da inongo aipurik egiten berdintasunaren inguruan eman diren aurrerapenen inguruan. “Gogoan izan” atalean, “Joka sano” kanpainaren berri ematen da eta larrialdietarako telefonoa azaltzen da. Horretaz gain, programan kanpainaren logoa eta agertzen da.

Prentsa oharrek, sare sozialak eta hedabideak

Aurten udal hedabideetan San Joanen inguruan udaletik egin diren prentsa oharretan eta hedabideei eskura jarri zaien informazioan berdintasunak garrantzia izan du.

Udal webgunean eta Berdintasun Sailaren sare sozialetan, San Joanetan eman diren berdintasunaren aldeko aurrerapenak azpimarratu dira eta honen inguruko informazioa eman da.



Erabili den hizkuntza eta iruditeria zaindu da eta emakumeak ikustarazteari garrantzia eman zaio.

Bestaldetik, Maiatzako [Alekan](#) (5.znb) 2017ko jaietako behatokiaren emaitzen berri eman zen. Baita, [Tolosako Atariak Ekainean](#), artikulua argitaratu zen Tolosako emakume musikariak bisibilizatzeko.

Udal agerraldia

2018ko San Joan jaien berri emateko egin zen agerraldian 8 lagunek parte hartu zuten, 6 emakume eta 2 gizon:

- Olatz Peon, alkatea.
- Txupinazoa botako zuen Asanblada Feministako Maria Pilar Garaialde
- Helduen Eguneko ordezkaria Juan Bautista Aranzabe
- Tolosako musika bandako ordezkaria Idoia Mujika
- Udal txistulari bandako ordezkaria Iñaki Letamendia
- Koadrila eguneko ordezkaria Maddi Agirrezabala
- Urdina Txiki elkarteko eskopetarien kapitaina Idoia Eizmendi



Ez zen irudi parekiderik eman baina bai berdinzalea.

Agerraldian parte hartu zuten guztiek indarkeria matxistaren kontrako txapa edo pegatina jantzia zuten eta berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren kontrako mezuak oso presente egon ziren.

Balorazioa: aurrerapenak

- Kartel lehiaketako epaimahaia parekidea da eta berdintasun teknikariak lehengo galbahean parte hartu du.
- Komunikazio sailaren kontzientziazio maila gero eta altuagoa da hizkuntza eta iruditegi ez sexistaren inguruan.
- Egitarauan indarkeria sexistaren gaia aipatzen da.
- Egitarauan “Tolosak, EZETZ!” logoa agertzen da.

- Egitaraua egiterako orduan hizkuntza eta iruditegi ez sexistaren arauen arabera lan egin da.
- Sare sozialetan, udal web gunean, herriko hedabideetan berdintasun ikuspegitik lan egiten saiatu da.
- Aleka udal aldizkarian jaietako behatokiaren berri eman da eta 2017ko emaitzez informatu da.
- Udal agerraldian emakumeen presentzia handitu da eta agerraldi osoan zehar berdintasunaren alde eta eraso sexisten kontrako mezuak bidali dira.

5.....EGITARAUA

Sarrera


Atal honetako planteamendua jaien egitarauan dauden jarduerak batzuen genero analisia egitea da: **txupinazoa**, **musika jarduerak** eta **kirol ekintzak** aztertu dira.

Txupinazoa

Jardueraren deskripzioa eta analisia

Pregoilaria Tolosaldeko Asanblada Feminista izan zen. Jai bileretan Koadrilen Eguneke bi ordezkariak proposametu zuten.

Taldea 17 emakumek ordezkatu zuten eta pregoia 2 emakumeen artean bota zuten. Suziria, pregoia bota zuen **emakumetako batek bota** zuen.





Balorazioa: aurrerapenak

- Omendutako taldea feminismoaren alde lan egiten duen talde bat da.
- Txupinazoa emakumez osatua egon da.
- Alkatearen partaidetza egon da.
- Pregoian jaiak berdintasunez bizitzeko aipua egin da.
- Pregoian berdintasunaren aldeko mezuez betea egon da.
- Publikoaren jarrera aktiboa izan da eta ez da genero desberdintasunik nabarmendu hauen rol eta jarreraren artean.

MUSIKA

Metodologia

Nagusiki analisi kuantitatiboa egin da. Musikako analisi kuantitatiboan ze irizpide jarraitu ditugun argitu nahi dugu:

- Egitarauan agertzen diren jarduera musikal guztiak kontutan hartu ditugu.
- Emakume bakarlarien kasuan bakarrik bakarlaria izan dugu hizpide.

Partaidetzaren genero analisia

2018ko San Joan jaietan programatu diren musika ekintza guztiak analizatu ditugu eta horren arabera, zenbat emakume eta gizonek parte hartu duten kuantifikatu dugu; Tolosako San Joan jaietan, guztira **49 ekintza musikalak** antolatu ziren. Honen arabera, musikarien (instrumentistak eta ahotsak) %64 (579) gizonak izan dira eta %36a (326) emakumezkoak.



Ondoren analisirako erabili den taula aurkezten da:


	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Iraunkorra Txaranga		10	10
Isidro Iarrañaga akordeoi orkestraren kontzertua	12	18	30
Bonberenea txaranga	5	18	23

GiroArte dultzaina taldea	1	3	4
Tolosako dultzaineroak	1	3	4
Iratzar erromeria	2	4	6
Mulambo perkusio taldea	4	13	17
Burrunba elektrotxaranga	2	13	15
Jazpana	1	4	5
Gabezin	1	5	6
Jainekin txaranga		10	10
Eraul "haurren hirian"	2	4	6
Txistularien alardea	30	42	72
Nögen	1	2	3
XIIIX. Solstizio kontzertua: et encarnatus orkestra	10	9	19
XIIIX. Solstizio kontzertua: Juantxo zeberio		1	1
XIIIX. Solstizio kontzertua: Gorka Benitez		1	1
XIIIX. Solstizio kontzertua: Elies Hernando		1	1
XIIIX. Solstizio kontzertua: Maddi Oihenat	1		1
XIIIX. Solstizio kontzertua: Malentxo Zeberio	1		1
XIIIX. Solstizio kontzertua: Maitane Iruiñ	1		1
XIIIX. Solstizio kontzertua: Atila y los unos		1	1
Eduardo Mokoroaren omenez: Tolosako Santa Maria Musika Kapera	38	32	70
Eduardo Mokoroaren omenez: Tolosako musika banda	10	32	42
Eduardo Mokoroaren omenez: Tolosako		4	4

Txistularien banda			
Eduardo Mokoroaren omenez: Arimaz Kamara Orkestra	9	5	14
Eduardo Mokoroaren omenez: Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra	12	8	20
Eduardo Mokoroaren omenez: Tolosako Dultzaineroak	1	3	4
Koltxoi kontzertua		5	5
Insania Crew by DJ Jokka		1	1
Antzarrak Perratzera		5	5
Batukada feminista "ahAlgara Morea"	40		40
Txistularien kalejira		4	4
Tolosako musika eskolako ikasleen banda	9	39	48
Tolosako Musika banda "San Juan zortzikoa" eta kalez kale ibiliko da	10	32	42
Santa Maria musika kapera	37	18	55
Vendetta		5	5
Dj Ziribulio Sound		4	4
Los tres de la noche		3	3
Diana: Tolosako Musika banda	10	32	42
Diana Tolosako eta Iruñako udal txistulariak		10	10
Diana: Tolosako Dultzaineroak eta GiroArte dultzaina taldea	2	6	8
Tolosako musika banda (eskopetariekin)	10	32	42
Santa Maria musika kapera (meza nagusia)	38	32	70
Tolosako musika banda, Tolosako eta Iruñako txistulariak kontzertua	10	42	52

Tolosako musika banda eta txistulariak (bordondantzariekin)	10	38	48
Kalean txaranga	1	9	10
Sonidos de Mexico	1	12	13
Joselu Anayak		4	4
GUZTIRA	323	579	902


Musika taldeen osaketaren ezaugarriak ere neurtu ditugu, hau da, jo dituzten musika taldeetatik zenbat daude mutilez soilik, emakumez soilik edo gizon-emakumez (mistoak) osatuak:



Honi tiraka talde mistoen analisi sakonagoa egitea ere erabaki dugu. Hau dela eta hola banatzea erabaki dugu:

- **Talde misto, Orekatua:** partaideak sexuen arabera banatuta jartzean, bi sexuen kopuruak partaideen guztien %60 eta %40 bitartean kokatzen badira.
- **Talde mistoa, feminizatua:** %60tik gora neskak badira.
- **Talde mistoa, Maskulinizatua:** %60tik gora mutilak badira.

Beraz, aurten kontratatatu diren talde mistoen datuak honakoak dira:




	%	Datu osoa
Misto OREKATUA	%18	5
Misto FEMINIZATUA	%7	2
Misto MASKULINIZATUA	%75	21

Hiru gauza azpimarratu nahiko genuke:

- Kontratatzen diren talde mistoen artean maskulinizatuak diren taldeak gehiengoa dira.
- Kontratatu diren 2 talde misto feminizatuak koroak izan dira
- Oreaktuen artean antzeko gertatu da, musika estiloa errezitala edo korala izan da.

Puntu oso positiboa, Batukada Feministaren ikuskizuna izan da. Tolosako kaleetan parte hartzen duten 5. urtea da. Batukadaz gain, identifikatu diren emakumez bakarrik osatutako beste 3 taldeak bakarlariak izan dira.

GAUETAKO MUSIKA KONTZERTUEN OSAKETA



Gauetan programatzen diren musika ekintzei dagokionez, guztira **23 musika kontzertu programatu dira**. Esan behar da, gauetako musika ekintzak maskulinizatuak daudela.

	Mistoak diren taldeak			Gizonez osatutako taldeak	Emakumez osatutako taldeak	Guztira
	Feminizatua	orekatua	Maskulinizatua			
Datu osoa	2	3	8	10	0	23
%	%9	%13	%35	%43	%0	

Programatu diren gaueko kontzertuetan ez dago ezta talde bat %100an neskez osatua, aldiz gizez bakarrik osatutako 10 talde daude. Beraz, datu guzti hauek ikusita gizez bakarrik osatutako taldeak eta maskulinizatutako taldeak elkarturik 18 musika talde daude, hau da, gauean programatu denaren %78a.

Antolakuntza

Musika taldearen aukeraketa era kolaboratibo batean egiten da: udalak bere proposamenak ditu eta Jai Bileretan hauek kontrastatu eta proposamen berriak jasotzen ditu. Ez dago musika kontzertuen aukeraketarako irizpide sistematizaturik, gustuak eta aurrekontuen araberakoa delarik gehien bat.

Berdintasun ikuspegitik ondorioak eta erronkak

- [MYM blogan](#) arabera Estatu Espainoleko musika festibaletako emakumeen parte hartzearen batz bestekoa %12a da. Tolosan 2018an %8a izan da.

- Alderdi positibo moduan, neska bakarlariak, kantautoreak eta Batukada Feminista ditugu.
- Erronka moduan, gaueko kontzertuetan ez da neskez bakarrik osatutako talderik kontratatu. Eta mutilen presentzia oso nabarmena da oholtzan gainean.
- Musika kontratatzeke orduan, ez da irizpideen lehentasunik zehaztu.
- Emakume gehien bildu dituen musika estiloa korala edo klasikoa izan da.
- Tolosako udala, musika alorrean emakumeen partaidetza hazteko urratsak ematen ari da, baina ez da era sistematizatu eta egonkor batean egiten.

Balorazioa: aurrerapenak

- Musika taldeen %58 mistoak izan dira, eta aurreko urtearekiko (%41) igoera nabarmena egon da.
- Batukada Feministak 5. urtez hartu du parte San Joanetan. Bertan 40 emakumek kalean presentzia handia hartzen dute eta ahalduntzerako esperientzia ere bada; eta beraz, oso erreferente positiboa, orokorrean, eta neska gazteentzat bereziki.
- Emakumez osatutako 4 taldek/bakarlari jo eta abestu dute aurtengo jaietan.

KIROLAK

Metodologia

Jarduera honen analisia nagusiki kuantitatiboa izan da, eta jaietan Kirol Arloaren bitartez ekintza bat antolatu dituzten elkarteek ekintzak hartu dira kontutan. Horretarako, dirulaguntzarako memoria fitxa erabili da. Jaietan antolatzen diren 12 kirol jardueretik 9 memoria fitxa jaso dira (%75):

1. Gimnasia Ritmiko urte amaierako erakustaldia
2. Futbol txapelketa V. Urtzi Gurrutxaga memoria
3. Padel torneo
4. Haurren Eskubaloia txapelketa
5. 3x3 saskibaloia saria
6. Hiru tontorrek maratoia
7. XLII Jose M^a Anza Txirrindulari lasterketa
8. Tenis Txapelketa finala
9. Areta futbola haurrentzat

Jardueraren garrantzia, deskribapena eta analisia


Jaietan kirol jardun asko antolatzen dira, gehienetan kirol klub edo elkarteek antolatutakoak.

Kirolaren egungo egitura kontuan hartzen bada, guztiz androzentrikoa dena, eta jaietan identifikatu ditugun jarduerak kontutan hartuta (futbola, pelota, txirrindulariza, maratoia, gimnasia ritmikoa, etb), zail da festetan burutu diren kirol jardunak kutsu hori ez izatea. Kirol gehienak gizonezkoen afizioekin eta gizentasunaren irudiarekin harremanduta daudela esan dezakegu.

Partaidetzaren genero analisia

Memoria fitxen araberrako informazioan oinarrituz San Joan festetan kirol ekintzetan batez ere gizonezkoek parte hartu dute:

KIROLETAN PARTE HARTU DUTENAK SEXUAREN ARABERA




Kirol zerrendako ekintzak banan-banan hartzen badugu kirol gehienetan gizonezkoen parte hartzea nagusi dela ikusiko dugu. Emakumeen parte hartzea gehiengoa den ekimena Gimnasia ritmiko da eta aurren eskubaloia txapelketa parekidea den bakarra.

	EMAKUME AK	GIZONA K	GUZTIRA	Feminizazio gradua
Gimnasia ritmiko urte amaierako erakustaldia	120		120	100%
Futbol txapelketa V. Urtzi Gurrutxaga memoriala	1	287	288	0%
Padel torneo	4	8	12	33%
Haurren Eskubaloia txapelketa	47	53	100	47%
3x3 saskibaloia saria	92	260	352	26%
Hiru tontorrak maratoia	130	500	630	21%
XLII Jose M ^a Anza Txirrindulari lasterketa	0	120	120	0%
Tenis txapelketa finalak		18	18	0%
Areto futbola haurrentzat	90	414	504	18%
GUZTIRA	484	1.660	2.144	23%

Ekintzetan parte hartzen dutenaz gain jarduera antolatzen dutenak ere kontutan hartu ditugu. Kasu honetan antolatzaileen datuak parekideak dira:

ANTOLAKUNTZA SEXUAREN ARABERA



Ekintza guztietan ez da esataria, arbitroa edo epaimahairik egon. Hala ere, honen inguruan dauden datuak landu ditugu. 3 figura hauek batera analizatzen baditugu, 14 gizon eta 4 emakume izan dira. Kasu guztietan, gizonezkoak gehiago dira.

	EPAIMAHAI			ARBITROAK			ESATARIAK		
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Haurren Eskubaloia txapelketa			0		5	5			0
3x3 saskibaloia saria	1	1	2	1	3	4		1	1
XLII Jose M ^a Anza Txirrindulari lasterketa	2	4	6			0			0
GUZTIRA	3	5	8	1	8	9	0	1	1

Beste gai bat indarkeria matxista da. Kasu honetan SanJoan jaietan ez da inongo eraso matxistarik identifikatu kirol jardueretan. Galdetegian ere gaiaren prebentziorako neurriak hartzen den galdetzen da, kasu honetan ez dago inongo ekintzarik prebentziorako neurriak hartzen dituenak.

Bestalde, orokorrean jardueretan ez dira modu sistematikoan berdintasuna bultzatzeko irizpiderik edo neurriak ezartzen. Hala ere Hiru Tontorrek Maratoiak baditu irizpide batzuk dagoeneko ezarriak eta sistematizatuak:

- Dortsalen preferentzia emakumezkoiei ematen zaie.

- Munduko txapeldun diren 2 emakumezko lasterketan egon ziren Maite Maiora eta Oihana Kortazar
- Sari berdinak ematen dira.
- Lantaldeak parekatzen dituzte

Hala ere, aipatu behar da sariak banatu dituzten kirol guztietan gizon eta emakumezkoei sari berdina banatu dietela.

Berdintasun ikuspegia ondorioak eta erronkak

- Kirol arlotik bideratzen diren kirolak esparru oso maskulinizatutakoak dira.
- San Joan jaietako kirol jarduerak, parte hartzeari dagokionez, oso maskulinizatuak daude (%77).
- Parte hartzeari dagokionez feminizatuta dagoen ekintza bakarra Gimnasia Ritmikoa da.
- Antolakuntza aldiz parekidea da.
- San Joan jaietan ez da identifikatu inongo eraso matxistarik.
- Orokorrean, kirol eragileek ez dituzte berdintasuna bultzatzeko irizpide edo neurri sistematizaturik ezartzen. Ezta indarkeria matxistaren prebentziorako neurririk ere ez.
- Hiru Tontorren Maratoiak jada identifikatuta ditu berdintasuna bultzatzeko hainbat irizpide eta urtez urte martxan jartzen dituzte.

Balorazioa: Aurrerapenak

- Behintzat kirol eragile batek berdintasuna bultzatzeko irizpideak identifikatuak ditu eta beste ekintzetarako praktika on bat izan daitezke.
- Kirol jarduerak antolatzerako orduan, antolakuntza parekidea da.
- Dirudienez, ez da inongo eraso matxistarik egon.

6.....INDARKERIA

Sarrera

Indarkeria sexistaren gaia jaietan oso presente egon izan da azken urteetan: sexu eraso kasuek egoeraren larritasuna agerian uzten dute, eta erakunde publikoek beraien ardura hartzen joan dira. Tolosa aitzindaria izan da gai honetan, eta indarkeria sexista jaien testuinguru zabalago batean kokatzeko gaitasuna izan du.

Joka sano! Eta Tolosak, EZETZ! Kanpainak eta beste jarduera batzuk

2018 urteko indarkeria matxistaren kontrako kanpainak ekintza ezberdin izan ditu:

- “Indarkeria matxistarik gabeko herri baten alde” gida kaleratu eta herriko etxe guztietan banatu da.
- Puntu lilak eta Tolosak, EZETZ! kartelak komertzio eta tabernetan banatu dira.
- Tolosak, EZETZ! kartelak ezarri dira.
- Joka Sano pegatinak eta Tolosak, EZETZ!! Txapak banatu dira koadrila egunean eta eskopetarien artean. Gune publikoetan ere egon dira.



Sexu erasoen eta protokoloaren kudeaketa

2018an, 2017an egokitu zen protokoloa indarrean egon da. Protokolo horretan udal-zerbitzuen betebeharrak zeintzuk izan behar dira azaltzen da.

Aurtengo San Joanetan ez da sexu eraso salaketarik egon, beraz, protokoloa ez da aktibatu.

Balorazioa: Aurrerapenak

- *Tolosak, EZETZ! dio indarkeria sexistaren aurrean. Joka sano kanpaina* egonkortzen ari da, eta honen presentzia handitu da.
- *Joka Sano* pegatinaren irudia berritu da.
- “*Indarkeria matxistarik gabeko herri baten alde*” gida sortu eta etxe guztietara banatu da.
- Udal protokoloa jai testuingurura egokitua indarrean jarraitzen du.
- Jabetze Eskolan Autodefentsa feminista ikastaroak egonkortu dira.
- “*Ligoteo sano*” prestakuntza hasi dira ematen gazte lokaletan.
- Rap tailerra Jabetza Eskolan eskaini da.
- Gaia lantzeko komunikazio estrategia diseinatu da.
- Jaietan ez ezik jaietatik kanpo eragiteak jaietan isla duela sinisten da.

7.....**BALORAZIO OROKORRA**

Orokorrean San Joan jaiak, poliki poliki, gero eta berdinzaleagoak direla esan dezakegu, hala nola, balorazio bileran emakumeak gehiengoa izan ziren, emakume musikari gehiago egon dira aurreko urtearekin konparatuz, hizkuntza ez sexistaren erabilera euskarri guztietan (digitalak eta paperezkoak), batukada feministaren presentzia errotuagoa, agerraldian emakumeak (esparru ezberdinetakoak) izan dira gehiengoa, Txupinazoak Tolosako Asanblada Feminista omendu du, jai bileretan berdintasunarekiko herritarren sentsibiltate nabaritu da, eta abar.

Aurrerapen hauek sendotzeko eta barneratzeko helbururekin lan egin behar da, horregatik jarraitu behar da tresnak sortzen aurrerapen hauek testuinguruaren arabera izan ez daitezkeen. Horretarako Behatokia indartu beharko litzateke eta instrumentu hau Berdintasun arloaren ardura baino gehiago dela pentsatzen hasi behar da. Hau da, behatokiak eragin handiago eta sistematizatuago izateko udalaren baitan Jai arloaren kolidergo bat behar du. Azken batean, Jaia arloarentzat Behatokia lanerako instrumentu bat izan daiteke jaietan berdintasuna era eraginkorrago eta sistematizatuago batean txertatu ahal izateko.

Bestaldetik, Behatokiaren berezko hedatze edo zabaltze izaerarekin jarraituz, orain arte egin den bezala, azterketari jaietako eremu gehiago batu behar zaizkio baita beste jai batzuk ere. Honetaz gain, eta txostenean jaso den bezala, jaiak gero eta berdinzaleagoak izateko lanerako instrumentuak sortu behar dira, hala nola, sortu berri dugun kiroleko galdetegia egokitu, jaietan indarkeriari aurre egiteko ekintza herrikoiak sortzeko metodologiak, musika talde misto eta feminizatuen inguruko irizpideak, eta abar.

PROIEKTUAREN LIDERGOA



PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA

